

Iker Alberdi, ONNERA Groupeko Zuzendari Orokor berria

- **Alberdik 15 urte baino gehiago daramatza empresa-taldeko ardura-karguetan.**
- **Izendapen honekin ONNERA Groupek hazteko eta munduan zabaltzeko asmoekin jarraitzen du.**

Madril, 2017ko ekainaren 7an – Fagor Industrial Koop. E.ko kontseilu errektoreak Iker Alberdi izendatu du ONNERA Groupeko Zuzendari Orokor. Nazioarteko enpresa-talde honek sukalde lanetarako, garbiketarako eta hotzeko aplikazioetarako ekipamenduetarako soluzioak eskaintzen lan egiten du.

Alberdik esperientzia zabala du sektorean, eta 15 urte baino gehiago daramatza taldeko ardura-karguetan. 2002an iritsi zen Fagor Industrialera Fabrikazio Arloko arduradun lanetara, eta jarraian, Egosketako arduradun izendatu zuten. Edesa Horecako zuzendari orokorra ere izan zen Polonian, eta ondoren, Europa eta Asiako Asber eta Edenox marken Zuzendaritzako buru izan zen. 2015eko martxoan Fagor markako Negozioko Zuzendari kargua hartu zuen, eta lan horretan aritu da orain arte.

Izendapen honekin, ONNERA Groupek sektorean duen lidergoa indartu du, eta hazteko nahiz mundu osoan zehar zabaltzeko duen asmoarekin jarraitu du. Postu berrian, Alberdik ONNERA Groupeko proiektuaren koordinazioaren ardura hartuko du, eta Jose Luis Lizarbe ordezkatu du.

“Ziur gaude Iker ONNERA Groupeko proiektua bikain kudeatuko duela, izan ere, ibilbide ezin hobea izan du, bai estatuan, eta baita nazioartean ere”, baieztatu du Mikel del Riok, Fagor Industrial Koop. E.ko Kontseilu Errektoreko Lehendakariak. *“Harro gaude Alberdiren mailako profesional batek taldeko jardueren lidergoa izateaz, eta ziur gaude etorkizunean arrakasta gehiago lortzen jarraituko dugula”,* adierazi du del Riok.

ONNERA Groupi buruz

ONNERA Group ostalaritzarako, garbiketako eta hotzeko aplikazioetarako ekipamenduen soluzioetan lan egiten duen nazioarteko enpresa-taldea da. 17 elkartek osatzen dute, eta Fagor, Inoxfera, Asber, Edenox, Efficold, Danube, Domus eta Primer markak biltzen ditu, besteak beste, liderrak hainbat sektore, merkatu eta herrialdetan. Bere produktuak 5 kontinenteetan merkaturatzen dituen mundu-mailako taldea da. Estrategikoki banatutako 8 fabrikazio planta dauzka munduan (Espainia, Frantzia, Polonia eta Mexiko), eta merkatu bakoitzari egokitutako soluzio eskaintza zabala emateko gai diren 1.800 profesional baino gehiago.

Informazio gehiago eskatzeko edo elkarrizketak kudeatzeko, jarri harremanetan:

LEWIS
Marina Obrero / Nuria Mañá
FagorSpain@teamlewis.com
917 701 516